



***JAI EUSKALDUNAK,
PARTIZIPATIBOAK
ETA PAREKIDEAK***



ANOETAKO HERRIKO JAIK ETA JAI-GIROKO EKITALDIK ANTOLATZEKO AINTZAT HARTU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Anoetako jaien antolaketan bi ardatz nagusitu dira azken urteetan: anoetarren izaera euskaldunari erantzungo dioten jaiak izatea eta herriko eragileekin batera jai partizipatiboak antolatzea. Etengabe aldatuz doan gizartean bizi garenez, jaien antolaketari buruzko hausnarketa bultzatu du Udalak, betiere jaien antolaketan anoetarren kultura eta ibilbide oparoari erreparatu eta gizarte parekide bat lortzeko irizpideak zehaztu eta idazteko helburuarekin.

Jarraian azalduko diren irizpideak aipaturiko hausnarketa horretatik ateratakoak dira. Herriko jaietz gain, urtean zehar herrian izaten diren jai-giroko hainbat ekitalditan aintzat hartzeko idatzi dira, betiere tresna ireki eta baliagarria izatea dute helburu, beharrezko irizitakoan aldatu eta zabaldu daitezkeenak.

IZAERA EUSKALDUNEN JAIK

1. Anoetako historiari eta herri izaerari erantzunez, antolatzen diren jai eta ekitaldiak -nagusiki- euskaraz izango dira eta euskal kulturako adierazpenak bultzatzeko eta ezagutarazteko bitarteko ere izan beharko dute. Horrez gain, herritarren kultur aniztasunari erantzunez, jatorri desberdineko kultur adierazpenak herriko jaietan txertatzeko aukerak aztertu eta gauzatzeko erabakiak hartuko dira.

PARTIZIPATIBOAK ETA ANTOLAKUNTZA PAREKIDEA DUTENAK

2. Jaiak eta kaleak guztionak dira, beraz, espazioak berdina okupatuko ditugu gizon zein emakumeok; horretarako, jaien antolakuntzan guztion presentzia eta parte-hartzea bermatzeko aukerak eta baliabideak eskainiko dira. Antolakuntzan, herriko eragile eta talde desberdinen parte hartzea bermatuko da.
3. Jaiak izaera herrikoari eutsi behar diote, bai antolakuntzan baita parte-hartzean ere. Baina, gizartea aldakorra den heinean, izaera anitzagoko jende berria inplikatzeko ahalegina egin behar du Jai Batzordeak.
4. Adin, genero, kultura eta jatorri ezberdinen arteko sareak indartzea garrantzitsua da herriko elkarbizitzarentzat, eta antolaketak horretarako aukerak eman behar ditu.



ERALDATZAILEAK IZATEKO AUKERA EMATEN DUTEN JAIAK

5. Herritar orok egoera orotan eroso parte hartzeko aukera emango duten jaiak bultzatuko dira, aukera ezberdinak aztertzeko jarrera irekia mantenduz. Proposamen eta jarduera berriak aztertzeko aukera bermatuko da.
6. Herriko jaietan kooperazioa eta parte-hartzea bultzatuko duten ekintzak egon behar dute; talde-izaera eta maila desberdinetako parte-hartzea ahalbideratu beharko du antolakuntzak.
7. Ez dira sexuen araberako banaketak bultzatuko, eta daudenak deseraikitze eta berrantolatzeko aukerak aztertuko dira. Gune desberdinetan emakumeen presentzia eta parte-hartzea bultzatzeko eta errazteko aukerak emango dira.
8. Gizarte parekidea bultzatzeko ereduak indartu eta eskainiko dira jarduera berri guztietan. Maskulinizatutako ekintzetan emakumeen parte-hartzea agerian jarriko da, hau da, emakumeen parte-hartzea indartuko da eta egoeraren arabera erabakiko dira zer-nolakoak. Horrez gain, jaietako emankizunetako partaideak hautatzerakoan ere, gaia erdigunean jarri eta ahalik eta hautaketa parekideena burutuko da.
9. Jaietan, eremu lehiakorak diren kasuetan, bizipen osasuntsuak eta jarrera irekiak bermatzeko baldintzak jarriko dira. Lehiaketa formatutik aldentuz, parte-hartze parekideagoa sustatzen duten eredu berriak bultzatuko dira.
10. Jai Batzordeak ahalegina egingo du jaietan lanean ari direnak errespetuz tratatu daitezela bermatzeko, eta zer-nola landu *Indarkeriaren Aurkako Protokoloan* zehaztuko da. Jarrera egokiak sustatzeko irudiak erabiliko dira jai esparru desberdinetan.
11. Jaietako balorazioetatik berrikuntzak egiteko gaitasuna izan behar du Jai Batzordeak, beraz, neurgailuak erabiliko dira balorazioak egin eta aldaketak bermatzeko.

INDARKERIAZ LIBRE

12. Segurtasuna bermatuko da emakumeak jaietan askatasunez mugitu daitezen, etxera bidean nahiz edonora doazela ere.

SENTSIBILIZATU, AHALDUNDU

13. Jaiek herritarrak sentsibilizatzeko balio behar dute, beraz, aldaketak burutzeko eta proposamen berriak aztertzeko aukera eman behar dute jaiek.
14. Jaietan ere etxeko lanen banaketa eta zaintza-lana garrantzitsua eta beharrezkoa denez, jaien antolakuntzak bere gain hartuko du horri buruzko kontzientzia jorratzeko zeregina.

INGURUMENAREKIN ERRESPETUZKOAK

15. Jaien antolaketetan ingurumenarekiko jarrera eta jokabide jasangarria bete beharko da. Horretarako, bertako produktuen erabilera lehenetsiko da eta hondakinak murrizteko bitartekoak jarri beharko dira jan-edanarekin zerikusia duten jardueretan.

IRIZPIDEEN NEURGAILUAK

Irizpide parekideak gauzatzen diren edo ez zehazteko, behaketa bat burutuko da eta, horretarako, ondorengo neurgailuak erabiliko dira:

1. Jai-eremuen erabilera parekidea: behatzea aniztasuna eta parte-hartzeko aukera parekidea erdigunean izan den.
2. Jardueretan ikusten diren rolak: behatzea rol tradizionalak non eta nola izan diren eta rol anitzagoak eta "berritzaileagoak" azaltzeko aukera eman den.
3. Kooperazioa eta parte-hartzea bultzatzeko aukera ematen duten guneak eta ekintzak: behatzea zenbat ekintza kooperatibo egiteko aukera izan den, eta zenbat jarduera izan diren partaidetza parekidea eta anitza ahalbideratu dutenak.
4. Jaien balorazio-saioetan berrikuntzak eta berrantolaketak: behatzea ekintza berriak sartu diren eta, ekintzaren bat berrantolatu den kasuan, zer-nola gauzatu diren.
5. Jaietako segurtasuna: behatzea emakumeak jai-eremuetan lasai ibili ahal izateko kanpainarik egin den, emakumeak etxera lasai joateko neurririk hartu den, parte-hartze eremuetan intentsitate txikiko biolentziarik izan den, indarkeria matxistarik gertatu den, etab..
6. Jaiak eta ahalduntzea: emakumeak gutxiago parte hartzen duten ekintzetan behatzea ea baliabideak jarri diren emakumeek parte har dezaten, eta ea jendarte anitzak parte hartzeko aukera izan duen.
7. Ekitaldien hizkuntza: behatzea euskararen presentzia ziurtatu den, eta nola.

IRIZPIDEEN KUDEAKETA

Irizpide hauek **Euskara, Kultura eta Parekidetasun Batzordeetan** aztertu eta onartuko dira, eta, aurrerantzean, herriko jai eta ekitaldi guztietan kontuan hartuko dira, antolatzeke unean zein balorazioa egiteko unean.

Anoetako Udalak irizpide hauek kontuan izango ditu Udalaren beraren babesean antolatzen diren ekimenetan, eta baita beste eragileei baimena emateko garaian ere, udal lokalak edota udal baliabideak eskatzen dituztenean.

Irizpide hauen betetze maila gainbegiratzeko ardura aipatutako batzordeetako zinegotziei dagokie, betiere batzordeko teknikarien aholkularitza teknikoan oinarrituta.

Irizpide hauei aldaketaren bat, gehigarriren bat edo zehaztasunen bat erantsi nahi izanez gero, aurrez aipatutako batzorderen batetik abiatuta, proposamena idatziz egingo da eta hiru batzordeen artean hartuko da azken erabakia. Aldaketa edo berrikuntza hori eranskin bezala txertatuko da dokumentu honetan. Hiru batzordeetan iritziz gero dokumentuak sakoneko aldaketak behar dituela, beste parte-hartze prozesu bat ireki eta dokumentu berri bat osatzeko ibilbidea hasteko aukera aztertuko da.

2017an egindako parte-hartze prozesuaren partaideak:

Udala, Ikastola, Loatzo Musika Eskola, Anoetako Emakume Taldea, Anitz Dantza taldea, Anoetako Gazte Asanblada, Txosna batzordea, talogileen taldea, Euskal Jai batzordea, Kukuak Kantuz

Anoeta, 2018-01-24

5